

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3819

EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 27koa, Hezkuntza Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien kidegoan sartzeko Hezkuntzako sailburuaren 2024ko azaroaren 27ko Aginduaren bidez deitutako lehiaketa-oposizioan hautatutako izangaien praktikaldia.

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko abuztuaren 12ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien kidegoko praktiketako funtzionario izendatu ziren sailburu beraren 2024ko azaroaren 27ko Aginduaren bidez deitutako lehiaketa-oposizioan hautatutako izangaiak.

Aipatutako deialdiarekin bat etorritz, praktikak arautu eta kalifikazio-batzordearen osaera eta eskumenak zehaztu behar dira.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien kidegoko funtzionario izendatutako izangaien praktikak batzordeak kalifikatuko ditu. Hona batzorde horren osaera eta jardute-prozedura:

1.1.– Batzorde bakar bat eratuko da, Eusko Jaurlaritzako Lakuako zerbitzu zentralen egoitza izango duena, eta kide hauek izango ditu:

– Ikuskaritza nagusiko ikuskari bat; Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak izendatuko du, eta batzordeburu gisa jardungo du.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoko karrerako lau funtzionario. Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak izendatuko ditu, eta kide gisa jardungo dute.

1.2.– Kalifikazio-batzordearen osaera Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>

1.3.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan abstentzioari eta ezespeneri buruz ezarritakoa aplikatuko zaie kalifikazio-batzordeko kideei.

1.4.– Batzordeak izendatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoko eskarmentua duten karrerako funtzionarioen tutoretzaren pean gauzatuko da praktikaldia.

Kalifikazio-batzordeak izendatuko du tutorea, lurralde bakoitzeko ikuskari buruaren proposamenez. Nolanahi ere, lurraldeko ikuskari buruaren proposamenez, kalifikazio-batzordeak ikuskari-tutore bakoitzari –edo azken batean baita zonaburuei ere–, praktiketako ikuskari bat edo gehiago esleitu diezaioke.

Praktikaldia gauzatzen den bitartean esleitutako tutoretza betetzea eragozten duen gorabeheraren bat gertatuko balitz, lurraldeko ikuskari buruak beste tutore bat proposatuko du adierazitako irizpideei jarraituz, eta kalifikazio-batzordeak izendatuko du.

1.5.– Tutorearen betebeharra izango da Hezkuntza Ikuskaritzari dagozkion egitekoak gauza-tzearen inguruko aholkuak eta informazioa ematea praktiketako funtzionarioei, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuan jaso bezala.

2.– Praktikaldiaren bukaeran, eranskinean jasotzen diren alderdiei dagokienez hautagaiak egindako lanaren balorazioa jasotzen duen txostena egingo du ikuskari-tutoreak, eta dagokion lurraldeburuari bidaliko dio.

Era berean, eranskinean jasotzen diren alderdiei dagokienez hautagaiak egindako lanaren balorazioa jasotzen duen txostena egingo du zonaburuak, eta dagokion lurraldeburuari bidaliko dio.

Azkenik, dagokion lurraldeburuak txosten horiek bidaliko dizkio kalifikazio-batzordeari. Lurraldeburuak uste badu komeni dela informazio berria ematea, txosten osagarri baten bidez adieraziko du; txosten hori tutorearen eta zonaburuaren txostenekin batera aurkeztuko da. Tutorearen edo zonaburuaren txostenen adierazleren batean balorazio negatiboak edo nahikoak ez direnean, txosten osagarri hori nahitaezkoa izango da, eta, gutxienez, ebazpen honen eranskineko adierazleei erreparatu beharko die.

Gainera, batzordeak izangaiei azken txosten bat eskatu ahal izango die; horretan, egindako irakasle-praktika autoebaluatuko eta izandako zailtasunak eta jasotako laguntzak baloratuko dituzte.

Txosten guztiak dagokion kalifikazio-batzordera bidaliko dira.

3.– Hautagaien ebaluazioa kalifikazio-batzordeak egingo du, honako honen arabera:

a) Ikuskari-tutoreak, zonaburuak eta, horrela badagokio, praktikaldia burutu den ikuskaritza-lurraldeko buruak, praktiketako funtzionarioaren jardunari buruz egindako txostenak.

b) Hautagaiaren azken memoria-txostena, kalifikazio-batzordeak eskatuz gero.

Ikuskari-tutorearen, zonaburuaren eta, horrela badagokio, praktikaldia burutu den ikuskaritza-lurraldeko buruaren txostenek honako hauek adierazi beharko dituzte: oinarri dituzten elementuak eta txostenak egiteko erabili dituzten agiriak.

4.– Egindako txostenak ikusita, kalifikazio-batzordeak hautagaiaren ebaluazioa egingo du, eta praktiketako funtzionarioen zerrenda igorriko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, bakoitzari dagokion kalifikazioarekin batera.

5.– Praktiken kalifikazioa «gai» edo «ez-gai» izango da.

Hautatutako izangaiek «gai» kalifikazioa lortzeko, eranskinean aipatzen diren kompetentziak gainditu beharko dituzte. Ebaluazioa gainditzeko, beharrezkoa da gutxienez «ona» maila lortzea Eranskineko item guztietan. Haietako batean «ona» maila baino baxuagoa lortuz gero, ebaluazioa ez da gainditutzat joko.

«Ez-gai» gisa kalifikatutako praktiketako funtzionarioek kalifikazio horien gaineko helegiteak aurkez ditzakete, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari alde aurretik jakinarazita, eta bost eguneko epean, jakinarazpena egiten den egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 76. artikuluan xedatutakoaren arabera. Epe hau igarota, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak ebazpena emango du, eta dagokion kalifikazio-batzordeari eta interesdunari igorriko zaio.

Bigarrena.– Kalifikazio-batzordeak hamar eguneko epean eratu beharko dira, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera. Kalifikazio-batzordeak osatzeko, kide guztiek egon beharko dute, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak

2025eko irailaren 11, osteguna

baloratu beharko dituen zirkunstantzia berezirik gertatu ezean. Batzordea osatzeko ekitaldiaren akta egingo da, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari bidaliko zaio.

Hirugarrena.— Kalifikazio-batzordeak «gai» edo «ez gai» kalifikazioen behin betiko akta idatzi ahal izateko, batzordeburuak eta gainontzeko batzordekideen erdiak egon beharko dute. Edonola ere, batzordea eratu ondoren ezinbestekak bultzaturik edo ustekabeko arrazoiengatik batzordekideetako batzuk edo batzordeburua ezin badira agertu, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari eman beharko zaio horren berri eta behar dena erabakiko du.

Laugarrena.— Praktikaldiaren iraupena ikasturte batekoa izango da, eta ebaluatu ahal izango dira, ikuskaritzan sei hilabeteko benetako zerbitzuak egin ondoren. Eguneko lanaldia, gutxienez, bi herenekoa izango da.

Salbuespenezko kasuetan, praktiketako funtzionarioa aldi baterako ezintasun-egoeran, seme edo alabaren jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo harreragatiko baimenean edo ezinbesteko beste kasu batean badago (salbuespenezko egoera aurreikusi gabea eta saihetsezina), eta, horren ondorioz, ezin badu praktika-fasea normaltasunez egin, eta kalifikazio-batzordeak hala baloratzen badu, praktikaldiak gutxienez hiruhileko bat baino gehiago iraun ahal izango du, eta iraupen horrek jarraitua izan beharko du. Salbuespenezko kasu horietan, gutxienez 2/3ko lanaldia egin beharko da egunean

Kalifikazio-batzordeak egingo duen azken aktan ebaluazioa egin behar zaien praktiketako ikus- kari guztiak eta beren kalifikazioak agertuko dira. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari bidaliko zaizkio praktikak ebaluatzeko akta horiek.

Ez-gaitzat jotzen diren izangaiak hurrengo promozioko hautatutakoekin hasi ahal izango dira lanean, praktika-fasea behin bakarrik errepikatzeko. Kasu horretan, sartuko den promozioko azken hautatuaren hurrengo tokia beteko dute. Hurrengo urterako ez bada deitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko hautaketa-prozesurik, praktika-fasea egingo dute ez-gaitzat jo zituzten ikasturtearen hurrengo ikasturtean.

Lanean hasten ez direnek edo bigarrenez ez-gai deklaritzen direnek galdu egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak. Deialdia egin duen agintaritzak deklaratu du eskubide horiek galdu direla, ebazpen arrazoitu baten bidez.

Bosgarrena.— Praktikaldian, praktiketako funtzionarioei azterketa medikuak egiteko eskatu ahal izango du Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak, kalifikazio-batzordearen proposamenez, Hezkuntzako Ikuskarian behar bezala jarduteko baldintza fisiko eta psikikoak betetzen dituztela egiaztatzeko asmoz.

Seigarrena.— Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari eskuduntzak ematen zaizkio, praktikaldi hau aurrera eramateko behar diren argibideak emateko.

Zazpigarrena.— Ebazpen honen aurka, gora jotzeko helegitea jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 27a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.

2025eko irailaren 11, osteguna

ERANSKINA

Zeharkako kompetentzien balorazio-taula				
Kompetentzia	Oso eskasa	Hobetzekoa	Ona	Bikaina
Erakundeari atxikimendua: Erakundearekiko konpromisoa eta leialtasuna erakustea, jarraibide eta prozeduren betetze aktiboa eginez, komunikazio irekia eta errespetuzkoa sustatuz, eta ikuskaritzaren lana baloratu eta babestuz.	Erakundearekiko atxikimendua oso baxua da; jarraibideak ez ditu betetzen, eta komunikazioa eskasa edo ia ezinezkoa da. Mesfidantza eta erresistentzia nabariak dira.	Atxikimendua irregularra da; jarraibideak ez ditu beti betetzen, eta komunikazioa mugatua da. Jarrera pasiboa edo zalantzia du erakundearen funtzioekiko.	Atxikimendua egokia da. Jarraibideak betetzen ditu, eta komunikazioa nahiko eraginkorra da. Erakundearen lana baloratzen duela erakusten du.	Atxikimendua sendoa da. Jarraibideak betetzeaz gain, lankidetzaz aktiboa dago. Komunikazioa argia eta jarraitua da, eta ikuskaritzaren lana errespetatzen du.
Proaktibitatea: Ikuskaritza-jardueraren hobekuntza modu aktibo eta arduratsuan parte hartzea, ekarpen eraikitzaileak eginez, ekimen berriak proposatuz eta antolaketaren garapenean eragin positiboa izateko jarrera proaktiboa erakutsiz.	Ez du parte hartzen ikuskaritza-jarduera hobetzeko. Ez du iritzirik ematen ezta ekimenetan parte hartzen ere.	Parte-hartzea mugatua da. Noizean behin ekarpenak egiten ditu, baina eragin eskasarekin eta modu irregularrean.	Erregularri parte hartzen du prozeduren hobekuntzan. Ekarpen eraikitzaileak egiten ditu, eta lankidetzarako jarrera erakusten du.	Parte-hartze aktiboa eta proaktiboa du. Ekimenak proposatzen ditu, eta ikuskaritzaren garapenean eragin positiboa du.
Gaitasun sozialak: Harreman positibo eta errespetuzkoak ezartzea eta mantentzea ingurukoekin, komunikazio eraginkorra eta entzute aktiboa erabiliz, gatazkak modu eraikitzailean kudeatuz eta talde-lanerako jarrera egokia erakutsiz.	Gaitasun sozial egokirik ez du erakusten. Komunikazio desegokia da, gatazkak sortzen ditu, eta talde-laneko harremanetan zailtasunak ditu.	Harremanetarako gaitasuna irregularra da. Batzuetan egokia da, baina gatazkak edo gaizki-ulertuak sortzen ditu. Talde-lanerako jarrera hobetu beharra du.	Gaitasun sozial egokiak ditu. Harreman positiboak ditu, komunikazio eraginkorra erabiltzen du, eta gatazkak kudeatzen jakiten du.	Gaitasun sozial bikainak erakusten ditu. Komunikazio argia eta errespetuzkoa du, eta gatazkak modu eraikitzailean konpontzen ditu. Lidergo-gaitasuna agertzen du.
Talde-lana: Taldekoko heburuak lortzeko modu koordinatuan lan egitea, lankidetzaz, elkarrekiko errespetua eta erantzukizuna oinarri hartuta; ekarpen konstruktiboak egitea eta beharrezkoa denean lidergoa hartzeko prestasuna erakustea.	Ez du talde-lanean parte hartzen edo egindakoa desegokia da. Elkarlanerako zailtasunak ditu, eta taldearen dinamikan eragin negatiboa du.	Parte hartzen du, baina modu irregularrean. Batzuetan laguntzen du, baina besteetan ez dago prest lankidetzarako.	Talde-lanean modu eraginkorrean aritzen da. Koordinazioa eta errespetua erakusten ditu, eta ekarpen baliotsuak egiten ditu helburuak lortzeko.	Parte-hartze aktiboa eta proaktiboa du talde-lanean. Lidergo-gaitasuna du, lankideak motibatzen ditu, eta giro ona sustatzen du.

2025eko irailaren 11, osteguna

Zeharkako kompetentzien balorazio-taula				
Kompetentzia	Oso eskasa	Hobetzekoa	Ona	Bikaina
Malgutasuna eta egokitzapena: Egoera, testuinguru eta behar aldakorretara modu malgu, azkar eta eraginkorrean egokitzea; jarrera ireki eta moldakorra izatea, eta aldaketei aurre egiteko prestasuna eta ekarpen proaktiboak eskaintzea.	Ez du malgutasunik erakusten. Egoera berrietara egokitzeko zailtasun handiak ditu, eta aldaketen aurrean erresistentzia erakusten du.	Batzuetan egokitzen da, baina zailtasunak ditu egoera aldakorreetan. Malgutasun mugatua erakusten du.	Testuinguru aldakorretara egokitzeko gai da. Jarrera ireki eta moldakorra du, eta egoera berriei erantzuten die.	Malgutasun handia erakusten du. Azkar moldatzen da eronka berrietara, proposamen eraikitzaileak egiten ditu, eta aldaketei proaktiboki erantzuten die.

Ikuskarrien kompetentzia profesional espezifikoaren balorazio-taula				
Kompetentzia	Oso eskasa	Hobetzekoa	Ona	Bikaina
K1 Ikuskatzea eta kontrola: Ikuskariak ikastetxeen jarduera sistematikoki baloratzeke, hezkuntza-araudia eta administrazio-betekizunak betetzen direla egiaztatzeke eta etengabeko hobekuntza-prozesuak sustatzeko duen gaitasuna, gainbegiratze (behaketa eta aholkularitza) eta kontrol (lege- eta prozedura-betetzeen egiaztatpena) funtzioak uztartuz.	Egiten dituen ikuskatze- eta kontrol-jarduerak eskasak dira, eta ez dute jarraipenik. Irregularitasunak antzemanda ere, ez ditu neurriak hartzen edo ez die horiei erantzuten.	Ikuskapena eta kontrola noizean behin egiten ditu, baina jarraipenean eta koherentzian hutsuneak ageri dira. Arazoak identifikatzen ditu, baina neurriak ez dira beti egokiak edo garaiz hartuak.	Ikuskapena eta kontrola modu erregularrean egiten du. Arazoak identifikatu eta egoki erantzuten die.	Ikuskapen eta kontrol sistematikoa eta eraginkorra egiten du. Arazoak azkar eta modu proaktiboan heltzen die. Bere komunikazioa gardena eta eraginkorra da, eta dokumentazioa beti eguneratua dauka.

2025eko irailaren 11, osteguna

Ikuskarrien kompetentzia profesional espezifikoen balorazio-taula				
Kompetentzia	Oso eskasa	Hobetzekoa	Ona	Bikaina
<p>K2 Ebaluazioa: Ikuskariak irakasleen, zuzendaritza taldeen eta norberaren jardun profesionala, bai eta ikastetxearen errendimendu akademikoa, irakaskuntza-praktiken eraginkortasuna, eskola-giroa, ikasleen ongizatea eta hezkuntza-komunitatearen partaidetza ere ebaluatzen duen gaitasuna, indarguneak eta hobekuntza-aukerak identifikatuz, kalitateko hezkuntza eta etengabeko hobekuntza bermatzeko helburuz.</p> <p>K3 Aholkularitza: Ikastetxeei, irakasleei eta zuzendaritza-taldeei eta hezkuntza komunitateari orientazioa eta laguntza emateko gaitasun profesionalean oinarritzen da, hezkuntza-kalitatea hobetzeko helburuarekin, testuinguruaz aztertuz, beharrak identifikatuz eta ikuspegi pedagogiko eta arauetan oinarritutako estrategiak proposatuz, komunikazio, araudi-eguneratze, arazo-konponbide eta berrikuntza sustatzeko gaitasunak uztartuz, sistema hezitzailea eraginkorra, bidezkoa eta etengabeko hobekuntzan oinarritua izan dadin.</p> <p>K4 Bitartekaritza: Hezkuntza-komunitatean bizikidetzak gatazka aztertzea, kudeatzea eta konpontzen saiatzea da, elkarriketa, elkarrekiko errespetua eta adostutako konponbideak sustatuz.</p>	<p>Ez du ebaluatzeko gaitasunik edo oso mugatua da. Irizpide argirik gabe ebaluatzen du, eta ez du datu objektiboetan edo analisi egokietan oinarritzen.</p>	<p>Ebaluatzeko gaitasun mugatua du. Oinarrituko irizpide batzuk aplikatzen ditu, baina ez beti modu koherentean edo sakonean.</p>	<p>Ebaluatzeko gaitasun ona du. Irizpide argiak eta egokiak erabiltzen ditu, datu objektiboetan oinarrituta.</p>	<p>Ebaluatzeko gaitasun bikaina du. Ikuspegi sakon eta zorrotza erabiltzen du, datuetan eta analisi egokietan oinarritutako gomendio ballagarriak emanez.</p>
<p>K3 Aholkularitza: hobetzeko helburuarekin, testuinguruaz aztertuz, beharrak identifikatuz eta ikuspegi pedagogiko eta arauetan oinarritutako estrategiak proposatuz, komunikazio, araudi-eguneratze, arazo-konponbide eta berrikuntza sustatzeko gaitasunak uztartuz, sistema hezitzailea eraginkorra, bidezkoa eta etengabeko hobekuntzan oinarritua izan dadin.</p>	<p>Ez dio informazio eta aholkularitza egokirik eskaintzen hezkuntza komunitateari.</p>	<p>Informazioa eta aholkularitza eskaintzen ematen ditu, baina modu irregularrean edo osatu gabe.</p>	<p>Informazioa eta aholkularitza modu eraginkorrean eskaintzen ditu. Hezkuntza komunitateari argibideak ematen dizkio.</p>	<p>Informazio eta aholkularitza bikaina eskaintzen du. Hezkuntza komunitateari orientazio zehatza, argia eta eraginkorra ematen dio, bere beharrak aurreikusiz.</p>
<p>K4 Bitartekaritza: Hezkuntza-komunitatean bizikidetzak gatazka aztertzea, kudeatzea eta konpontzen saiatzea da, elkarriketa, elkarrekiko errespetua eta adostutako konponbideak sustatuz.</p>	<p>Gatazka konpontzeko ahaleginik ez du egiten, bitartekaritza teknika oinarritukoak ez ditu erabiltzen, eta ondorioz egoerak okertzen dira.</p>	<p>Gatazka konpontzeko ahaleginak egiten ditu, baina ez dira eraginkorrak.</p>	<p>Gatazka konpontzeko eta bitartekotza egiteko modu eraginkorra du, baina egoera konplexuetan hobetzeko beharra dauka.</p>	<p>Gatazka konpontzeko eta eraginkorrean konpontzen ditu, bitartekaritza teknika aurreratuak erabiltzen.</p>

2025eko irailaren 11, osteguna

Ikuskarrien kompetentzia profesional espezifikoen balorazio-taula					
Kompetentzia	Oso eskasa	Hobetzekoa	Ona	Bikaina	
<p>K5 Komunikazioa: Bi hizkuntza ofizialetan informazioa modu argi, objektibo eta egokian transmititzeko, informazio zehatza eta inpartziala jasotzeko eta idatzeko, entzute aktiboa eta enpatia erabiliz komunikazio eraginkorra sustatzeko, eta tresna digitalak eraginkortasunez baliatzeko kompetentzia.</p> <p>K6 Konpromiso profesionala: Ikuskarriaren konpromiso profesionalak etikaz eta erantzukizunez jardutea dakar, etengabeko hobekuntzan eta etengabeko garapen profesionalean arreta jarriz, eta parte-hartzea eta lankidetzaz sustatuz, bere lanaren kalitatea ziurtatzeko.</p> <p>K7 Lidergoa: Lana antolatu eta planifikatu, kasurako erabaki egokiak hartuz, erabakiak irizpide teknikoaren arabera (legezkoak eta pedagogiarik eta hezkuntzari lotutakoak) defendatuz, justifikatuz eta argudiatuz, talde-lana gidatzeko eta lideratzeko gaitasuna erakutsiz, taldeen koordinazioa eta motibazioa sustatuz, helburu komunak lortzeko bidean.</p>	<p>Komunikazioa ez da egokia. Ideiak argi adierazteko zailtasun nabariak ditu, eta entzute aktiboaren faltan dago.</p>	<p>Komunikazioaren alorrean zailtasun batzuk ditu, baina saiatzen da ideiak adierazten.</p>	<p>Komunikazio egokia eta eraginkorra izaten du. Ideiak argi eta garbi adierazten ditu, entzute aktiboan oinarritzen da.</p>	<p>Komunikazio gaitasun bikainak ditu. Ideiak modu zehatzean, garbi eta ulergarrian adierazten ditu, entzute aktibo eta enpatia handiarekin.</p>	
	<p>Ez du hobekuntza edo kalitatearekiko konpromisorik erakusten.</p>	<p>Hobekuntza eta kalitatearekiko konpromiso irregularra du.</p>	<p>Hobekuntza eta kalitatearekiko konpromiso sendoa erakusten du.</p>	<p>Hobekuntza eta kalitatearekiko konpromiso nabarmena du. Bere lana etengabe hobetzen du, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza bilatzen ditu.</p>	
	<p>Lidergoa falta du. Taldeak gidatzeko edo motibatuzeko gaitasunik ez du.</p>	<p>Lidergoaren oinarriko ezaugarriak erakusten ditu, baina hainbat alditan argitasuna eta eraginkortasuna falta du.</p>	<p>Lidergo gaitasun egonkorra eta eraginkorra du. Taldea modu koherentean gidatzen du.</p>	<p>Lidergo gaitasun bikaina du. Taldea modu proaktiboan gidatzen du, helburuak lortzeko bideak garatuz eta taldekideen potentziala aprobetxatuz.</p>	

2025eko irailaren 11, osteguna

Lan-tresnen erabileraren balorazio-taula				
Kompetentzia	Oso eskasa	Hobetzekoa	Ona	Bikaina
<p>Txostenak: Txostenak egitea informazioa modu objektiboan bildu, aztertu eta sintetizatzea eskatzen duen kompetentzia profesionala da, hezkuntza-testuinguruaren diagnostiko argia eta hobekuntza-proposamenak emanez, hori guztia modu egituratu eta ulergarrian, erabakiak hartzea eta etengabeko hobekuntza errazteko.</p> <p>Bisitak: Bisitekin lotutako gaitasunak berekin dakar ikastetxeetara bisitak planifikatu, egin eta aztertzeko gaitasuna, pedagogia- eta administrazio-prozesuen funtzionamendua kontuan hartuta. Bisita horietan, indarrean dagoen araudia eta hezkuntzaren kalitatea ebaluatzen dira, indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatuz, ikastetxeei gomendioak eta laguntza emateko, haren garapena eta etengabeko hobekuntza errazteko.</p>	<p>Txostenak sortzen ditu, baina haien kalitatea oso baxua da. Ez dira argiak ezta erabilgarriak ere, eta ez dute oinarri sendorik. Proposamenak ez dira aplikagarriak edo praktikoa. Ez ditu inoiz garaiz egiten.</p>	<p>Txostenak sortzen ditu, baina hobekuntza nabarmena behar dute. Proposamen batzuk aplikatzeko zailak dira, eta edukia ez da beti erabilgarria. Askotan ez ditu txostenak garaiz entregatzen</p>	<p>Kalitate oneko txostenak sortzen ditu. Argitasuna eta erabilgarritasuna bermatzen ditu, eta oinarri sendoak ditu. Proposamenak aplikagarriak eta praktikoa dira, eta arazoak konpontzeko soluzio eraginkorrak eskaintzen ditu. Txostenak garaiz egiten ditu.</p>	<p>Kalitate bikaineko txostenak sortzen ditu. Oso argiak, ondo oinarrituak eta funtzionaltasun handikoak dira. Proposamenak aplikagarriak eta berritzaileak dira. Beti puntualki entregatzen ditu.</p>
<p>Bisitak: Bisitekin lotutako gaitasunak berekin dakar ikastetxeetara bisitak planifikatu, egin eta aztertzeko gaitasuna, pedagogia- eta administrazio-prozesuen funtzionamendua kontuan hartuta. Bisita horietan, indarrean dagoen araudia eta hezkuntzaren kalitatea ebaluatzen dira, indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatuz, ikastetxeei gomendioak eta laguntza emateko, haren garapena eta etengabeko hobekuntza errazteko.</p>	<p>Bisitak egiten ditu, baina modu desegokian. Plangintza eskasa da, eta helburuak ez dira argiak. Ez du beharrezko informazioa biltzen edo aztertzen, eta ez du ekarpen ballagarriak eskaintzen. Bisiten jarraipenik ez du egiten edo oso eskasa da.</p>	<p>Bisitak egiten ditu, baina hobetzeko aukera nabariak daude. Plangintza egiten du, baina ez da beti sistematikoa edo helburu zehatzekin egina. Informazioa biltzen du, baina ez da sakona edo behar bezala interpretatua. Gomendioak eskaintzen ditu, baina ez dira beti aplikagarriak edo eraginkorrak. Bisiten jarraipena egiten du.</p>	<p>Bisitak modu planifikatuan eta eraginkorrean egiten ditu. Helburuak argiak dira, eta informazioa modu sistematikoan biltzen du, azterketa zehatz eta objektiboak eginez. Gomendioak erabilgarriak dira, eta hezkuntza komunitateari benetako balioa ematen diote. Bisiten jarraipena egiten du, beharrezko doikuntzak proposatuz.</p>	<p>Bisitak modu estrategiko, sakon eta proaktiboan egiten ditu. Plangintza zorrotza eta helburu zehatzak ditu, eta informazioa modu sakonean eta egituratuan biltzen du. Balorazio eta gomendio zehatzak, erabilgarriak eta aplikagarriak egiten ditu, hezkuntza komunitateari laguntza esanguratsua eskainiz. Bisiten jarraipena sistematikoki egiten du, etengabeko hobekuntza sustatuz.</p>